

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHERKAKO ZEGEN ATALA

Bez-Aren eta Zerga Berezien Atala

558/2020 Foru Agindua, azaroaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen baita otsailaren 14ko 53/2020 Foru Agindua, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalak eskatzeko 517 eredua eta hura aurkezteko modua onetsi zituena

Otsailaren 14ko 53/2020 Foru Aginduaren bidez, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalak eskatzeko 517 eredua hura aurkezteko modua onetsi ziren.

Betebehar hori betetzeko beharrezkoak diren sistema tekniko eta informatikoak ezarri ahal izateko, foru agindu horren lehenengo xedapen iragankorrek 2020ko ekainaren 30era arteko aldi iragankorra ezarri zuen, establezimenduek 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen eskatutako marka fiskalen eredu zaharrak itsasteko, eredu horien izakinak ahal dela agortzeraino. Xedapen horretan, operadoreei sei hilabeteko epea eman zitzaiezen beren kudeaketa sistemak marka fiskal berrien inguruan eskatzen den informazioaren horniketa elektronikora egokitu zezaten. Marka zaharren itsaste horrekin lotuta, halaber, xedapen gehigarri bakarrek egutegi mailakatua ezarri zuen marka fiskalen izakinak aitortzeko, Administrazioari entregatzeko eta eredu zaharrak fisikoki suntsitzeko.

Mugikortasuna mugatzea ekarri zuen alarma egoera deklaratzeko eta zenbait sektore eta eragile ekonomikoren jardura gelditu izana zuzeneko eragozpena izan dira, zalantzarik gabe, 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Araubidearen 26.4 artikuluan (abenduarien 28ko 1512/2018 Errege Dekretuak emandako idazkeran) aurreikusitako informazioa emateko betebeharra Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez betetzeko, eta eragozpen handiak eragin dituzte marka fiskalei buruzko foru aginduaren 3. artikuluan aipatzen den informazioa emateko betebeharra eraginkortasunez betetzeko.

Ostalaritzaren eta turismoaren sektorea izan da jardura gelditzeak eta establezimenduek ixteak bereziki kaltetutako sektoreetako bat; izan ere, edari deribatuen kontsumo osoaren ehuneko 60 dago sektore horrekin lotuta. Horrek zuzenean eta nabarmen eragin die alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga berezia ordaindu behar duten establezimenduei.

Horrez gain, bada beste arazo bat: funtsezkoa ez den jardura produktiboa eta logistikoa geldiarazi, edo, gutxienez, moteldu izana eragina izaten ari da Diruaren eta Zerga Ziguiluen Fabrika Nazionalean bertan, zeina onartutako marka fiskalen ereduak fabrikatzeaz eta banatzeaz arduratzen baita.

Gaur egungo egoera horrek justifikatu egiten du zerga bereziak arautzen dituen araudiaren menpeko establezimenduei 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea otsailaren 14ko 53/2020 Foru Aginduaren 3. artikuluan ezarritako informazioa nahitaez emateko epea, eta eredu zaharretako marka fiskalen izakinak 2020. urte osoan agortu ahal izatea, xedapen gehigarri bakarrean aurreikusitako egutegi mailakatua zenbait hilabetez luzatuta. Horren helburua da, COVID-19aren eta alarma egoera deklaratzeko ondorioz sistema teknikoaren ezarpena atzeratu behar izan duten establezimenduek sistema horiek garatu eta ezarri ahal izatea eta barne eraginkortasuneko ahalik eta mailarik eraginkorrena berreskuratzea.

Azkenik, edari alkoholikoak zergarik gabeko dendetan saltzeko eta marka fiskala zergari lotutako helmugako salmenta puntuan itsasteko prozedura bereziari dagokionez, aipatutako foru aginduaren 3. artikulua 2. apartatuak prozedura sinplifikatu bat ezartzen du marka fiskalak jaso ondoren eman beharreko informazioa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez jakinarazteko. Erresuma Batuak, Brexit-aren ondoren, Europar Batasuna laster utziko duela eta, Penintsulako eta Balear Uharteetako txikizkako gordetegietan –zergarik gabeko dendetan – egindako edari deribatuen salmenta guztien ehuneko 50 baino gehiago eragiketa salbuetsizat hartuko dira, eta, beraz, kendu egin beharko dira marka fiskal horiek. Hortaz, eraginkorragotzat jotzen da sinplifikazio hori Penintsulako eta Balear Uharteetako portu eta aireportuetako zergarik gabeko dendei ere aplikatzea.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea otsailaren 14ko 53/2020 Foru Agindua, zeinak alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalak eskatzeko 517 eredia eta hura aurkezteko modua onetsi baitzituen

Aldaketa hauek egiten dira alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalak eskatzeko 517 eredia eta hura aurkezteko modua onetsi zituen otsailaren 14ko 53/2020 Foru Aginduan:

Bat. 3. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Zergaren aplikazio lurraldeko portu eta aireportuetan kokatuta dauden eta txikizkako establezimendu gisa bakarrik funtzionatzen duten edari alkoholikoen eta tabako laboreen gordetegi fiskalen kasuan, eta, orobat, itsasontzi edo aireontzietan kontsumitu edo saltzekoak diren edari alkoholikoak hornitzea soilik baimenduta duten gordetegi fiskalen kasuan, bidaiariei edari deribatutako saltzeari dagokionez, baldin eta edari horiek zigilu fiskala eraman behar badute eta salmentak hilabete natural bakoitzean egin badira, gordetegi horiek saldutako botila edo ontzietan itsatsitako unitate kopurua eta zigilu eredia bakarrik jakinarazi beharko dituzte, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez, hurrengo hilaren lehen bost egun baliodunen barruan».

Bi. Seigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Xedapen gehigarri bakarra. Izakinen deklarazioa eta marka fiskalen suntsipena.

1. 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen, gordetegi fiskalen eta harrera gordailuen fabrikatzaileek eta titularrek, bai eta, hala badagokio, noizbehinkako hartzaile erregistratuek, baimendutako hartzaileek, urrutiko saltzaileen ordezkari fiskalek, erregistratutako igorleek eta inportatzaileek erantsi gabe dituzten zigilu fiskalak jasotzen dituen aitortpen aurkeztuko diote Zerga Administrazioari, Foru Agindu hau indarrean jarri arte indarrean izandako E4, E5, P3, P4, P5, P6, P7, P8, G3, G4 eta G5 ereduak dagokienez, bakoitzaren zenbakia adierazita. Aitorpen hori aurkeztu ondoren, eta betiere 2021eko martxoaren 30a baino lehen, Zerga Administrazioari emango dizkiote zigilu horiek, suntsitu dituzten. Horiek entregatzen dituzten unetik aurrera, zigilu horiei dagokien zerga bereziaren balioa ez da zenbatuko Zerga Berezien Araubideko 26. artikuluan aurreikusitako bermeen muga kalkulatzeko.

2. Zerga administrazioak, 2021eko urriaren 31 baino lehen, aurreko paragrafoan aipatutako zigiluak suntsituko ditu, bai eta Zerga Administrazioak berak dituen E4, E5, P3, P4, P5, P6, P7, P8, G3, G4 eta G5 ereduak entregatu gabeko zigilu izakinak ere. Suntsiketa horren akta egingo da, suntsitutako zigilu motak, zenbakiak eta kopurua adierazita, baita non eta noiz suntsitu diren ere».

Hiru. Lehenengo xedapen iragankorra honela geratzen da idatzita:

«Lehen xedapen iragankorra. Establezimenduak berak dituen marka fiskalak itsasteko trantsizio aldia.

2020. urte osoan, establezimenduek zerga administrazioari 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen eskatu dizkioten zigiluak itsasten jarraitu ahal izango dute, aurreko xedapen gehigarri bakarrean aipatutako E4, E5, P3, P4, P5, P6, P7, P8, G3, G4 eta G5 ereduak zigiluak, hain zuzen, foru agindu honen 3. artikuluan aurreikusitako informazioa ematera behartuta egon gabe.

Era berean, edari deribatuak dituzten botilei edo ontziei foru agindu honek onetsitako marka fiskalen eredu berriak itsatsi ahal izango zaizkie 2020ko abenduaren 31ra arte, foru agindu honen 3. artikuluko 1 apartatuan aipatutako informazioa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa ematera behartuta egon gabe. Nolanahi ere, 2020. urtean zehar, edozein establezimendu titularrek hala nahi badu, 3. artikuluko 1. apartatuan ezarritako datuak aipatutako egoitza elektronikora bidali ahal izango ditu.

Foru agindu honen 3. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako datuen informazioa, alegia, 2020. urtean itsasten diren marka fiskalen eredu berriei buruzkoa, gerora bidali beharko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora, 2021eko lehen hiru hilabeteetan».

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2020ko uztailaren 10etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 3a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA